

## **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO EGUNA**

### ***SOS BAKARDADEA, NI ERE BANAIZ KONTUAN HARTZEKO***

Desgaitasuna duten pertsonen Europako eta nazioarteko eguna dela eta (ohi denez, abenduaren 3a), 2019koan CERMI gizarte mugimenduak manifestu hau eman du jendaurrean

### **MANIFESTUA**

Beren burua aurreratutzat duten gizarteetako gaitz bat desio ez dugun bakardadea da. Izan ere, desgaitasuna duten gizon-emakume asko bakarturik daude gizartean beren eguneroko bizitzan, gizarteko bizitzatik bazterturik daude, eta gisako egoerek bakardade behartua areagotzen dute. Bakardade horrek sorburu asko eta metagarriak ditu: adibidez, inguruneen, produktuen eta zerbitzuen irisgarritasunik eza; oinarrizko eskubideak erabiltzeko ezintasun edo zailtasun erabatekoa; behartutako jarduerarik eza; laguntzarik ez izatea autonomiaz egiazki bizitzeko; baliabide gutxiko inguruneetan bizitzea, baliabideak gaizki eta berdintasunik gabe banatuta daudelako (landa-ingurunea, adibidez); desgaitasuna dutenen balioari buruzko jarrera mesfidati eta negatiboek irautea jendearen iruditerian, etab. Azken buruan, herritar horienganako egiturazko bazterkeriak eta diskriminazioak haien bakardade behartua areagotzen dute.

Desio ez den bakardadea ez da uniforme giza talde horrengan. Izan ere, desio ez den bakardadearen eraginpean dauden pertsona desgaituak dira bazterturik gelditzeko arriskurik handiena dutenak: hots, adinekoak, indarkeriaren biktima diren haurrak, desgaitasun intelektuala eta garapenekoak dute pertsonak, edota buru osasuneko arazoak dituztenak, eta helduaroan edo zahartzaroan agertutako desgaitasunak dituztenak; eta oro har, autonomiarako laguntza behar handiak dituztenak. Faktore batzuek, gainera, are bakardade handiagoa eragiten dute, hala nola generoak, adinak, desgaitasun motak, jatorriak eta bizitokiak, besteak beste. Aurreko guztia nabarmen ugaritzen da desgaitasuna duten emakumeen artean,

edozein ikuspegi intersektionaletatik begiratuta: desio ez dugun bakardadeak emakume aurpegia dauka, nagusiki.

Eskura diren soziologia-azterlanen arabera, pertsona desgaituen % 20tik gora beraiek bakarrik bizi dira, eta azken horien % 38, berriz, desio ez duten bakardadean bizi dira. Bakarrik bizi diren pertsona desgaituen % 74 emakumeak dira. Harremanezko miseriak, hau da, gizarte lotura eta harreman handiak ez izateak, are gehiago jotzen ditu pertsona desgaituak. Desio ez den bakardadea gora doa, eta kostu handia du giza, gizarte eta osasun arloan. Horrenbestez, egungo nahiz etorkizuneko politika publikoek zeharkakotasunez ekin behar diote.

Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin bat, ezabatu egin behar dira giza talde horren aurkako estereotipoak eta, horretarako, Estatuak pertzepzio positiboak eragin behar dituzte gizartean, jendeak are kontzientzia handiagoa har dezan desgaitasuna duten pertsonak berez daukaten balioaz eta gizarteari egiten dioten ekarpenaz. Giza eskubideen itun horrek funtsezko bi balio ditu ardatz, hots, gizarteratzea eta komunitatean bizitzea, eta biak ere tresnarik ahaltsuenetakoak dira pertsona desgaituen isolamendua eta desio ez den bakardadea arintzeko. Gainera, 2030eko Agenda eta Nazio Batuetako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat, inork ere ez du bazterturik eta atzean gelditu behar.

## **SOS LAGUNTZA**

Hertsirik bizi naizelako nire etxean igogailurik gabe...

Adiskiderik gabe gelditu naizelako, etxetik alde egin behar izatearen ondorioz, etxeak ez baitzuen irisgarritasun baldintza egokirik nire desgaitasun egoera berrirako ...

Elkarrizketetan bakartua gelditzen naizelako; ezin dut informaziorik eskuratu, ezin naiz komunikatu ...

Ezin baitut lanik egin...

Adineko emakume desgaitua naizelako eta ez didate uzten nire bizitzaren kontrola izaten...

Inoiz ez nautelako kontuan hartzen, inoiz ez didatelako galdetzen zer dudan gustuko edo zer nahi dudan ...

Adinekoa naizelako eta desgaitasun bat dudalako, eta ez dut laguntzarik nik nahi bezala moldatzeko...

Beste batzuen mendean nagoelako nire bizitzako jarduera guztiak egiteko eta borondatea ukatzen didatelako...

Ez baitut laguntzaile pertsonalik...

Ikastetxean, eskola-jazarpena pairatzen dudalako, desgaitasuna izatearen ondorioz...

Ezin dudalako edo ez didatelako uzten nire kirolrik gogokoena egiten...

Aisiari eta kulturari uko egin behar diedalako, ez baitago irisgarritasunik, ez barrutietan, ezta filmetan eta antzerkian ere...

Landa ingurunean bizi bainaiz eta baliabiderik batere ez baitut eskura...

Desgaitasun bat dudalako eta kalean bizi naizelako...

Jendeak ez dakielako eta nirekin harremanik izan nahi ez duelako...

Pertsona arraroa iruditzen natzaielako...

Desgaitasun bat dudalako eta, hori dela eta, nire erabakiak zalantzan jartzen direlako...

Egoera horiek edo egunero bizi ditugun antzekoak direla eta, desgaitasuna dugun gizon-emakumeok, eta senideok, ozen oihukatu nahi dugu:

### ***SOS BAKARDAEA, ni ere banaiz kontuan hartzekoa***

Eta mobilizazio publikoa eta herritarrena aldarrikatzen dugu, estrategia egokien bidez gizarte isolamenduaren gaitz handia arintze aldera, desgaitasuna duten pertsonak hondatzen dituelako. Honatx hainbat ekimen egoki:

- Irisgarritasun unibertsala ematea ingurune, produktu eta zerbitzuei -lehenik, etxebizitzari-, desgaitasuna duten pertsonak zailtasun gehigarririk ez izateko gizartean parte hartzeko eta jendearekin harremanak egiteko. Oztoporik gabe, desio ez den bakardatea asko murriztuko litzateke.
- Neurri sendoak, desgaitasuna duten pertsonen artean jarduerarik eza eta langabezia jaisteko. Laneratzea eta lan duina areagotu ahala, lotura eta harreman gehiago izaten dira.

- Jendea Komunitatean sartzeko Estatu Estrategia bati ekitea, pertsona instituzionalizatuak beren nahien eta lehentasunen arabera bizitzeko, komunitatean sartzeko formulekin bat.
- Bizitza beregainaren garapena indartzen duten eta norberaren autonomia sustatzen duten prestazioak eta zerbitzuak eskaintzea desgaitasuna duten pertsonen eta haien senideei.
- Jendeak kontzientzia hartzeko kanpaina bultzatzea, desgaitasuna duten pertsonenganako estereotipo negatiboak ezabatze aldera, elkarlanean gizarte zibil antolatuaren, botere publikoen eta hedabideen artean.
- Desgaitasuna duten pertsonen familiei laguntzeko eta lagun egiteko programak abian jartzea; bereziki, desgaitasuna agertzen edo horren berri duten unean eta lehen haurtzaroan, desgaitasuna bizitzaren hasieran hartzen bada.
- Ikasleenganako eskola-jazarpenak eta abusuak prebenitzeko ekimenak eta programak egiazki praktikan jartzea; bereziki, desgaitasuna duten ikasleei laguntzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonendako programa aktiboak abian jartzea, gizarte eta auzokideen sareak sustatu eta indartzeko.
- Behar diren irtenbideak ezartzea, eraldakuntza digitala adineko desgaituen ahalduntzeari eta haiei lagun egiteari aplikatzeko, belaunaldien arteko elkarlanean oinarriturik, betiere.
- Desgaitasuna duten gizon-emakumeen boluntariora aktiboa sustatzeko neurriak hartzea, bereziki duten boluntariora-eragile espiritua sustatzeko eta gizartean erabat parte hartzeko, bide egokia baita gizarte harremanak ehuntzeko eta bakardadetik ateratzeko.
- Landa Garapenerako Estrategi Nazional Barneratzailea onestea, Espainiako landa-ingurunean bizi diren gizon-emakume desgaituak kontuan hartuko dituen, haien parte-hartzea, eskubide sarbidea eta ongizatea hobetuta.
- Zerbitzu publikoetako profesional taldeak prestatzea, pertsona desgaituen artean desio ez diren bakardade egoerak errazago atzeman eta haietan esku hartzeko.
- Edonork eskuratzeko moduko informazioa izatea eskura bakardadearen arloan desgaitasuna dutenen pertsonentzat diren baliabideez.

- Desio ez dugun bakardadeari buruzko azterlan eta ikerlanak egitea desgaitasuna duten pertsonen artean.

Hitz batez, CERMI mugimenduak dei egin du gizartean zabaltzen ari den arazo horretaz -desio ez dugun bakardadeaz- kontzientzia hartzera, eta halaber, herritarren nahiz botere publikoen ekintzarako deia egin du, pertsona guztiok –baita desgaitasuna dugunok– komunitatean murrizketarik gabe bizitzearen alde egin dezagun, bizitza hori esperientzia aberatsa, zintzoa, bizia eta zabala izan dadin. Izan ere, desgaitasuna duten gizon-emakumeek parte hartuz, isolamendurik gabe eta bakardade beharturik gabe, inklusioa gauzatzuz, hobekuntza handia gertatuko da bai gizabanakoentzat bai guztientzat.

2019ko abenduaren 3a.

**Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako  
Batzordea -CERMI-**

[www.cermi.es](http://www.cermi.es)

[www.convenciondiscapacidad.es](http://www.convenciondiscapacidad.es)

[www.fundacioncermimujeres.es](http://www.fundacioncermimujeres.es)